

# gogozko tokian aldaparik ez



barrendik 200-300

1A maila

irakaslearena

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:  
Koordinatzaile didaktikoak:

**Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
**Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
**Jose Luis Azpillaga** (Debabe Udal Euskaltegia)  
**Felix Sainz** (HABEko teknikaria)  
**Mikel Dorronsoro** (HABEko teknikaria)

Partehartzaileak:  
Errealizazio didaktikoa:

© HABE 2001. ISBN 84-86968-25-9  
Legezko Gordailua: SS-407/01  
Inprimaketa: **GERTU Inprimategia. Oñati.**

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Debade Udal Euskaltegiari materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:  
Valderejoko natur parkea. *Ikusgela*. ETB  
Euskal Herriko parke naturalak. Argia 1.676: *Oporrak* gehigarria

Era berean, argazki, izenburu eta gutunak erabiltzen utzi digutelako eskerrak eman nahi dizkiegu ondoko lagun, elkarte, erakunde eta aldizkariari:

Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. *Klaudio Harluxet Fundazioa*

Euskal Herriko basoak. *Aranzazi Zientzi Elkarte*

Atlas Geografikoa eta Politikoa. *Elkarlanean*

Euskal Herria Osatzeko Mapak. *Anaya Haritza*

# gogozko tokian: aldaparik ez

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

irakaslearena

## Hitzaurrea

Helduen Euskalduntzen Kurrikulua garatzeko xedez, hainbat ikas-material eman zuen iaz argitara HABEk, Kurrikuluaren maila bakoitzari zegozkion zortzi ikastunitate hiru sailetan banatuak, *Barrene*, 1B mailarako, *Barrenet 2*. mailarako, eta *Barrenkale 3*. mailarako. Materialgintza-proiektu horri jarraituz, eta euskaltegien partaidetza bultzatu asmoz, 2000ko uztailaren 28an HABEren zuzendari nagusiak ikas-materialak sortzeko dirulaguntza-deialdia egin zuen.

Deialdi horri erantzunez, euskaltegiek burututako ikastunitateak dituzu orain argitara ematen direnak. Bertan aurreko sailez gain 1 A mailarako *Barrendik* izeneko sailari dagozkion ikastunitateak ere argitaratu dira.

Nire eskerrik zintzo eta beroenak eman nahi dizkiet proiektu honetan parte hartu duten euskaltegiei, eta aurrerantzean ere lankidetzaren parte hartzerari bultzatu nahi zaituztet, ziur bainaiz materialgintza-proiektu honek euskararen ikas-irakas prozesua bideratzeko eta hobetzeko funtsezko baliabideak eskaintzen dizkiela euskaltegiei.

Jokin Azkue Arrastoa  
HABEren zuzendari nagusia



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |    |                                      |   |
|----|--------------------------------------|---|
| 1. | Irakaslearentzako oharrak            | 6 |
| 2. | Ikastunitatearen ibilbidea           | 7 |
| 3. | Ikastunitatearen eduki eta helburuak | 8 |

### 2. Atazak

- |                 |                                |    |
|-----------------|--------------------------------|----|
| <b>A Ataza:</b> | Valderejo, paradisu txikia     | 9  |
| <b>B Ataza:</b> | Euskal Herriko parke naturalak | 12 |
| <b>C Ataza:</b> | Gure gustuko tokia             | 14 |

### 3. Eranskinak

- |    |                 |    |
|----|-----------------|----|
| 1. | Bideo-pasarteak | 16 |
|----|-----------------|----|

## Euskal

Herriko parke naturalak izango ditugu hizpide ikastunitate honetako lehen bi atazetan. Azkenekoan, berriz, ikasleek goiz-pasa edo egun-pasa joateko gustuko toki baten ahozko deskribapena egin beharko dute. Hori egiteko, ereduak emango dizkiegu eta hasierako atazetan landutako hiztegia eta zenbait hizkuntz forma (leku-posposizioak, ahalezkoak, kohesio baliabideak...) baliatu ahal izango dituzte.



## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

### Parke naturalak

Euskal Herrian baditugu hainbat parke natural; denok ezagutuko dugu bat edo beste, noiz edo noiz joan garelako edo sarritan izaten garelako. Hala ere, gehienok etxetik hurbil ere izaten ditugu gustuko tokiak egun-pasa edo goiz-pasa joateko. Leku horiek, agian, oso ezagunak izango dira talde-kide gehientzat, baina izango da taldean norbait toki horren berri ez duena.

### Azalpena

Eguneroko bizitzan, noiz edo noiz, ezagutzen ditugun toki interesgarri buri hitz egiten dugu; batzuetan lagunekin, bestetan ezezagunekin. Helburua planen bat egitea edo planen bat egiten laguntzea izaten da, ideiak emanez, esaterako. Azalpenak laburrak izaten dira: tokiari buruzko zertzeladatxo batzuk (non dagoen, nola joan daitekeen, zer dagoen han...) ematea nahikoa izaten da gehienetan. Horrelako azalpena egin beharko dute ikasleek azken atazan.

### Hiztegia

Hiztegi berri dexente izango dute ikasleek, batik bat, **A** eta **B** atazetan. Hitz horiek guztiak ez dira garrantzi berekoak maiztasunaren edo erabilgarritasunaren aldetik. Hortaz, hitz batzuk maila honetan ikasteko modukoak izan arren (animalien izenak, esaterako), beste batzuk erreportajeak hobeto ulertzeko soilik izango dira baliagarri.

### Ikas-estrategiak

Hasierako bideo-erreportajea zein testu idatzizkoa zail samarrak dira **1A** mailako ikasleentzat. Horregatik, helburua gaineratik ulertzea izango da, eta eginkizunak horretara bideratuta egongo dira. Horrez gain, ulermena errazteko asmotan, ikasleak aurreikuspenak egitera bultzatuko ditugu ataza bakoitzaren aurretik. Azkenik, entzundako azalpenen egiturari erreparatuko diote, gero eurenak planifikatzeko erabil dezaten.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (6. or.)

### A ATAZA: VALDEREJO, PARADISU TXIKIA

- Bideoan azalduko diren landare eta animaliei buruzko aurreikuspenak
- Bideoa ikusi eta aurreikuspenak egiaztatu
  - *-Di/-Ti* atzizkia
  - Ibilaldiaren etapak ordenatu
  - Bideoa ikusi (9. or. irak. lib.) (8. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK/MINTZ/HITZ

### B ATAZA: EUSKAL HERRIKO PARKE NATURALAK

- Artikulua gainetik irakurri
- Taulako esaldietako parkeak identifikatu
- Lekua adierazteko posposizioak (12. or. irak. lib.) (14. or. ik. lib.)

IRAK/GRAM

### C ATAZA: GURE GUSTUKO TOKIA

- Goiz buelta edo egun-pasa egiteko gustuko tokia aukeratu
- Jatorrizko hitzunen ereduak erreparatu:
  - taula bete
  - Gustuko tokia aurkeztu:
    - eskema erabili (14. or. irak. lib.) (19. or. ik. lib.)

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ

### IKASLEEN

### AUTOEBALUAZIOA

(21. or. ik. lib.)

## 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

### HELBURU NAGUSIA

---

- Goiz-buelta edo egun-pasa egiteko gustuko tokia eta plana azaltzea

### LEXIKOA

---

- Ibarra, herrialdea, mendi-hegala, herrigunea, harkaitza, lursaila, lur emankorra, mendebaldea, naturgunea, parajea, basoa, hegoaldea...
- Pinua, pagoa, haritza, artea, sastraka...
- Basurdea, azeria, orkatza, otsoa, sai arrea, ardi latxa, abelgorria...
- Izendapena, bisitaria, ondarea, baliabidea, izadia, solairua, aretoa, aisialdia, esku-orria, ibilbidea, gomendioa, aholkua, errota, haitzartea, baseliza, harana, begiztatu, behatokia, informazio orokorra, bere luze-zabal-sakonean...

### MINTZAGAIAK

---

- Parke Naturalak

### ELKARRERAGINA

---

- Testua ordenatzea, testuko antolatzaileei erreparatuz. **(A)**
- Gustuko tokia aukeratzea. **(C)**

### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

---

- Bideo-erreportajeaz azaldutako landare eta animaliei buruzko aurreikuspenak egiaztatzea **(A)**
- Emandako artikulua gainetik irakurtzea, eskatutako informazioa identifikatu ahal izateko **(B)**
- Entzundako azalpenen egiturari erreparatzea **(C)**
- Ahozko azalpena egitea, emandako ereduaren egitura berreraikiz **(C)**

### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

---

- *-DI/-TI* atzizkiari erreparatzea **(A)**
- Lekua edo kokapena adierazteko posposizioei erreparatzea (*aurrean, atzean, ezkerrean, eskuinean, ondoan, inguruan, gainean, azpian, urruti, urrun, gertu, hurbil...*) **(B)**

### EUSKAL KULTURA

---

- Euskal Herriko hainbat parte naturalen berri izatea **(B)**



# ATAZA: VALDEREJO, PARADISU TXIKIA 85'

## Helburu nagusia:

- Valderejo parkeari buruzko bideo-erreportajea ulertzea.

## Helburuak:

- Bideo-erreportajeaz azaldutako landare eta animaliei buruzko aurreikuspenak egiaztatzea.
- *-Di/-ti* atzikiari erreparatzea.
- Ibilaldiaren etapak ordenatzea, testuko antolatzaileei erreparatuz.

## Zertan den:

- Ikasleek Valderejo parkea ikusiko dute bideo-erreportaje batean, bi zatitan ikusi ere. Lehenengo zatian aurreikuspenak egingo dituzte: nolako landareak eta animaliak azalduko diren. Bigarren zatia ikus-entzun aurretik, Valderejora bisita egiteko gomendatu den ibilbideko pausoak ordenatzen saiatuko dira, emandako testuaren antolatzaileei (*aurretik, handik, ezer baino lehen...*) erreparatuz.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Binaka edo hirunaka jarrita, Valderejori buruz hitz egingo dute ikasleek: non dagoen, inoiz egon diren, nolako den, zein herri dauden bertan eta inguruan... (5')
- Galdetu ikasleei nolako landareak eta animaliak bizi daitezkeen Valderejon. Horrek hizpidea eman dezake: animalia bat edo beste (hartzak, otsoak...) parke horretan ba ote dagoen ala ez eztabaida dezakete eta, agian, talde osoan komenta litezke erantzunak. (10')
- Bideo-pasartea \* ikusi aurretik, komeni da entzungo duten hiztegia lantzea. Beraz, binaka jarrita, beren liburuan dituzten hitzak lau multzotan sailkatzen ahaleginduko dira ikasleak. Sailkapena bukatutakoan, denon artean zuzendu daiteke. (10')

## ZUZENKETA - ORRIA

Lekuei buruzkoak	Landaredia	Animalia basatiak	Baserriko abereak
Ibar	Hegoalde	Basurde	Ardi latx
Herrialde	Pinu	Azeri	Abelgorri
Mendi-hegal	Pago	Orkatx	
Herrigune	Haritz	Otso	
Harkaitz	Arte	Sai arre	
Lursail	Sastraka		
Lur emankor			
Mendebalde			
Naturgune			
Paraje			
Baso			

### Ataza: aurreikuspenak egiaztatu

- Ikasleek **1. bideo-pasartea** ikusiko dute, egindako aurreikuspenak egiaztatzeko. (10')

### Feedbacka

- Ikasleek, taldeka, euren aurreikuspenetan asmatu duten ala ez komentatuko dute. (5')

### Gramatika eta diskurtsoa

- Errepara diezaiotela *-di/-ti* atzikiari eta bete ditzatela liburuan dituzten hutsuneak. (5')

\* Valderejoko natur parkea. *Ikusgela*. ETB

## ZUZENKETA - ORRIA

**Pagadi:** pago-basoa  
**Harizti:** haritz-basoa  
**Artadi:** arte-basoa  
**Urkiadi:** urki-basoa

**Arantzadi:** arantza-multzoa  
**Legedi:** lege-multzoa  
**Gizadi:** gizaki-multzoa  
**Araudi:** arau-multzoa

2

## Atazaurrea

- Liburuan dituzten hitzak eta beren gaztelaniazko baliokideak lotzen saiatuko dira ikasleak. Binaka jarrita egin dezatela. (5')

## ZUZENKETA - ORRIA

izendapen	denominación
bisitari	visitante
ondare	patrimonio
baliabide	recurso
izadi	naturaleza
solairu	planta, piso
areto	sala
aisialdi	tiempo libre
esku-orri	folleto, hoja informativa
ibibide	excursión, ruta
gomendio, aholku	recomendación
errota	molino
haitzarte	cañón, desfiladero
baseliza	ermita
haran	valle
begiztatu	divisar, ver
behatoki	observatorio
informazio orokorra	información general
bere luze-zabal-sakonean	en toda su extensión

## Ataza: ibilaldiaren etapak ordenatu

- Binaka jarraituz, Valderejora bisita egiteko gomendatutako ibilbideko pausoak ordenatu behar dituzte, testuko pistei erreparatuz: hau da, testu-antolatzaileei (aurretik...) eta kohesio-emalei (handik...). (15')

## Feedbacka

- Ikasleek **2. bideo-pasartea** ikusiko dute egindakoa zuzentzeko. (5')

## ZUZENKETA - ORRIA

**2** **Esku-orriek** hainbat **ibibide** proposatzen dituzte, tartean herri abandonatuak bisitatzeko **gomendioa** ere. Baina **aurretik**, **ur-errotaren** museotxora joatera gonbidatzen du.

**3** **Handik**, Puron ibaiari jarraituta, **haitzarte** ikusgarri batekin egingo dugu topo. San Lorentzoren **baselizatik haran** guztia **begizatuko** duzu.

**4** Eta **handik** Valledrueleko harkaitzetara ordu erdiko ibilaldia besterik ez dago. Harkaitzetan zintzilikatuta pausatzen diren sai arreak ikusteko **behatoki** aproposa da.

**1** **Ezer baino lehen**, **bisitariak** Parketxetik pasatzen dira **informazio orokorra** eta ibilbideari begira **aholkua** eskatzera **bere luze-zabal-sakonean**.

## Gramatika eta diskurtsoa

- Ikasleek, aurreko esaldietan azpimarratuta dauden hitzei eta hitz-multzoei erreparatu ondoren, zera esan beharko dute: zertarako balio duten eta horien ordez zein besterik erabil daitekeen. (15')

### ZUZENKETA - ORRIA

- A.** Ezer baino lehen, aurretik: instrukzioak edo urratsak ordenatzeko.
- B.** Handik: testuari kohesioa emateko.

- A.** Lehenengo, lehenik, ondoren, azkenik...
- B.** Hortik, han, bertan...

**! Oharra:** Hau, agian, une didaktiko egokia izan daiteke *lekuzko aditzondoak* birpasatzeko.

# ATAZA: EUSKAL HERRIKO PARKE NATURALAK



## Helburu nagusia:

- Artikulu bat gainirakurri ondoren, emandako esaldietan parkeak identifikatzea.

## Helburuak:

- Lekua edo kokapena adierazteko posposizioei (*aurrean, atzean, eskuinean...*) erreparatzea.
- Euskal Herriko hainbat parke naturalen berri jakitea.

## Zertan den:

- Ikasleek Euskal Herriko parke naturalei buruzko artikulu bat gainerik irakurrita, zerrendaturik dituzten esaldietan parkeak aurkitu behar dituzte, hau da, esaldi bakoitza zein parkeri dagokion. Ondoren, lekua edo kokapena adierazteko posposizio batzuk erabiliz, propio sortutako esaldien hutsuneak beteko dituzte.


## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Ikasleek, binaka, Euskal Herrian zenbat parke natural dauden komentatuko dute. (5')
- Beren liburuko mapari begiratuz, parkeak bertan kokatzen saiatuko dira. (5')

## ZUZENKETA - ORRIA



## Ataza: artikulua gainirakurriz, esaldietako parkeak identifikatu

- Ikasleek euren liburuan dituzten esaldietan Euskal Herriko parke naturalei buruzko informazio dago. Esaldiak irakurri egingo dituzte. (5')
- Esaldiak ulertu ondoren, *Argiako* artikulua\*\* gainetik irakurriko dute esaldi bakoitzean zein parke ezkutatzen den aurkitzeko. (10')

! **Oharra:** Gainirakurketak denbora mugatua izan behar du.

### ZUZENKETA - ORRIA

	PARKEA
1. Erreserba hau Ernio menditik hurbil dago.	Pagoeta
2. Parke hau Busturialdeko bailaran dago.	Urdibai
3. Bidasoa eta Urumea ibaien artean dago.	Aia
4. Gipuzkoako Goierriren bihotzean dago, eta Nafarroarekin muga egiten du.	Aralar
5. Parke honetan harizti bikainak aurki daitezke.	Aiako Harria, Pagoeta
6. Parke honetan goi mendietako fauna ikus dezakegu, eta baita artzainak mendira igotako ardi latxa ere.	Aralar
7. Inguruan Santimamiñeko kobazuloak daude.	Urdibai
8. Oraindik baso ugari daude parke horretan, esate baterako: Lizarrusti, Itaundieta, Leizadi edo Txindokin.	Aralar
9. Hegazti migratzaileen pausalekua da.	Urdibai
10. Parkean monumentu megalitiko asko aurki ditzakegu.	Pagoeta
11. Urjauzi paregabeak daude.	Aiako Harria
12. Izokinak, putreak, arranoak, basakatuak eta orkatzak ere aurki daitezke parke honetan.	Aiako Harria
13. Parke honetatik gertu Iزارo uhartea dago. Bertan eratzen dituzte kaiok eta belatzek beren koloniak.	Urdibai
14. Parke honen lur azpian tunel eta erreasto ugari aurki ditzakegu.	Aralar

### Feedbacka

- Zure laguntzarekin zuzenduko dute. (5')

### Gramatika eta diskurtsoa

- Ikasleek lekua eta kokapena adierazten duten eredu batzuk dituzte liburuan. Aztertu ondoren, osa ditzatela adibideak ezagutzen dituzten posposizioak erabiliz. (10')

### ZUZENKETA - ORRIA

- Parkearen **barruan, inguruan, ondoan...** lau herrigune daude.
- Harkaitz garaietan dabil beti, habiaren **inguruan, aurrean, gainean...** etengabe hegaka.
- Basoko zuhaitzen **artean, atzean...** izkutatzen dira oreinak.
- Puron ibaiak **erdi-erditik, goitik behera...** zeharkatzen du Valderejo parkea.

\*\* Euskal Herriko parke naturalak. *Argia* 1.676: *Oporrak* gehigarria

ATAZA: GURE GUSTUKO TOKIA  120'**Helburu nagusia:**

- Goiz-buelta edo egun-pasa egiteko gustuko tokia eta plana ahoz azaltzea.

**Helburuak:**

- Ikasleek binaka goiz-pasa egiteko gustuko tokia aukeratzea.
- Entzundako azalpenen egiturari erreparatzea.
- Ahozko azalpena egitea, emandako ereduaren egitura berreraikiz.

**Zertan den**

- Ikasleek beren gustuko tokiren baten deskribapena egin beharko dute. Ez da beharrezkoa toki hori oso urruti egotea, ezta bertara oinez joan behar izatea ere. Ataza behar bezala burutzeko, jatorrizko hiru hiztuni entzuteko parada izango dute.

**PROZEDURA:**

1

**Atazaurrea**

- Ikasleek, binaka, goiz-pasa edo egun-pasarako tokiren bat aukeratuko dute. (10')
- Hitzun batzuen azalpenak entzungo dituzte, beraiek ere geroxeago egin beharrekoaren eredu. Azalpenak entzun ahala, tokiak mapan kokatzen saiatuko dira. (20')
- Emaiezu ikasleei entzun dutenaren transkripzioa, irakurri eta liburuko taula osa dezaten. Horrela, azalpenak nola dauden egituratuta ikusiko dute ikasleek. (20')

**ZUZENKETA - ORRIA**

Gustuko tokia	Non dago? Nola irits daiteke hara?	Zer dago han: landaredia, fauna, etxeak...?	Nola antola daiteke egun-pasa? Bazkaltzeko tokirik? Gomendiorik?	Zein dira inguruan dauden aukera edo ibilaldiak?
<b>URBIA</b>	Arantzazutik gora ordubeteko bidea oinez.	- Zabalgunek handi bat. - la zuhaitzik ez. Lizar batzuk. Zaldiak, behorrak eta ardiak	Urbian bazkal daiteke.	- Aizkorrira - Arantzazura jaitsi
<b>GOPEGI</b>	Urkiolatik Gasteizerako bidean.	Zaldiak	Bertan bazkaldu eta arratsaldean zaldia alokatu ordubeterako.	
<b>IZARRAITZ MENDIA</b>	- Azkoitia eta Azpeitia artean. - Azpeititik edo Azkoititik igo. Elgoibarretik Zorroperaino joan, Zorrozpen kotxea utzi eta gero oinez Xoxoteraino eta Erloko tontorreraino.	- Pagoak, lizarrak eta haritza. - Ardiak eta behorrak. - Artzain-txabolak.	- Mendiko aterpean bazkaldu. - Bestela, jaitsi eta Aittola Zahar edo Madarixara	Lasturrera joan eta bertako errota ikusi. Endoia auzo ezezagunera.

### Ataza: gustuko tokiak azaldu

- Binaka, beren gustuko tokiari buruz dakitena komentatu eta ordenatu egingo dute liburuko galderei erantzunez. (20')

! **Oharra:** Komenigarria izan daiteke zenbait lokuziori-eta erreparatzea: *nahi izanez gero, sasoirik politena, arratsalde partean, animaliei dagokienez...*

### Azalpena

- Txandaka egingo dute. Azalpenaren osagarri gisa argazkiak eta mapak ekartzen badituzte, hainbat hobeto. Gainerako bikoteak adi-adi egongo dira eta, tokiak entzun ahala, mapan kokatzen ahaleginduko dira. (30')

### Feedbacka

- Zerorrek bideratuko duzu feedbacka, lehendabizi koherentziari so eginez: ea jatorrizko hitzunek erabili duten ala ez, eta ea azalpenak ordenatuak ala nahasiak izan diren. Ondorengo irizpideei ere erreparatuko diezu: hiztegiari (aberatsa/pobrea), ulergarritasunari (oso ulergarria/iluna) eta zuzentasunari (oso zuzena/hutsegite ugari). (20')

## 1. BIDEO-PASARTEAK

### ATAZA: VALDEREJO, PARADISU TXIKIA



1 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 5'30"

Bederatzi parke natural ditugu Hego Euskal Herrian: Urkiola, Aia, Bertiz eta Gorbeia, besteak beste. Lau herrialdeetako lursail zabaletan hedatzen dituzte beren paraje eder eta aberatsak. Batzuk besteak baino handiagoak, zabalagoak, aberatsagoak. Guztiak ederrak eta berandu baino lehen, bisitatzeko modukoak. Bat aukeratu behar eta guk txikiena aukeratu dugu: Valderejo, paradisu txikia.

Arabaren muturrean dago Valderejo. Arabaren alderik mendebaldekoenean, Burgoseri etengabe begi-keinuka. Lau izkinetatik hiru Arabari begira daude, laugarrenak, ordea, Burgosekin egiten du topo.

Parke natural txikia da: Euskal Herrian izendapen hori dutenen artetik txikiena. Luze-zabalean 35 km<sup>2</sup> besterik ez du paraje eder honek; Anoetako futbol zelaia baino 3.500 bat aldiz handiagoa da, beraz.

Parkearen barruan lau herrigune daude. Horietako bi, Villamardones eta Erribera, hutsik daude gaur egun, ez da inor bizi. Beste biei, La Hoz eta Lalastrari, antzeko etorkizuna suma dakieke, mirariren batek halakorik saihesten ez badu. Izan ere, bizi-egoera gogorra da han daudenentzat. Baserriarentzat, berez, aro gogorra da hau, baina are gehiago klimak eta lurra bizimodua nekoso egiten dutenean, batik bat udazken eta neguan. Han bizitzea zaila dela adierazten dute herri abandonatuek.

Gizakiaren presentzia urria izan arren, ezin gauza bera esan landarediaz eta faunaz. Landaredia da gauzarik aipagarriena, ibarrean hobekien gorde dena eta balio izugarria du. Ez bakarrik Arabari begira, Euskal Herri osoari begira ere. Pinudiak nagusi dira, baina nabarmentzekoak dira pagadiak, hariztiak eta artadiak. Lurra oso emankorra da toki askotan eta hezetasun-maila altua den inguruetan pagoa agertzen da. Zuhaitz hau sarri agertzen da Europako inguru menditsuetan. Parkearen barruan, batez ere, Holledo, Villamardones eta La Hozen aurkitzen dugu. Pagadiak freskoak eta sastraka gutxikoak dira eta lurrari babes handia ematen diote.

Beste zuhaitz batzuk ere badaude, lur emankorrik behar ez dutenak. Esate baterako, haritza eta artea hain emankorrak ez diren lurretan hedatzen dira; artadiak, ostera, hegoaldean eta sakonera txikiko alorretan.

Geologikoki eta landarediari dagokionez, Valderejo garrantzi handiko naturgunea da, zalantzarik gabe. Faunari dagokionez, ez da atzean geratzen; are gehiago, horixe da parkearen alderik nabarmenena. Animalia basatiek osatzen dute basoetako fauna eta inguru horretako taldeak egonkorak dira: basurde, orkatz, azeri eta otsoak, besteak beste.

Nahiz eta animalia horiek guztiak garrantzitsuak izan, parkeko animaliarik esanguratsuena sai arrea da. Izan ere, bertan dago Euskal Herriko sai arre talderik garrantzitsuenetakoa. Harkaitz garaietan dabil beti, habiaren inguruan etengabe hegaka.

Aipatu espeziak eta tamaina txikiagokoak ere abereekin batera bizi dira Valderejon. Abereen artean ardi latxa eta abelgorriak dira garrantzitsuenak.





## 2 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 4'45"

1992an lortu zuen Valderejok natur parkearen izendapena. Ordutik hona, urtero milaka bisitari hurbiltzen dira inguru haietara. Sai arrea eta bestelako animaliak, landaredi eta basoak, harkaitzetako tontor eta mendi-hegalak ikusteko asmoz.

Ondare natural eta sozial hau hobeto ulertu eta gozatzeko, parkeak baliabide batzuk eskaintzen dizkio bisitariari. Ezagut ditzagun zeintzuk diren.

Baliabide funtsezkoena Parketxea da. Zerbitzu honek parkea ikusten baino gehiago parkeari begiratzen irakasten du. Gauza bat da parkea ikustea, askotan aurrean duguna ulertu gabe, eta beste gauza bat izadiari begiratzea, izadia ulertuta eta apreziatuta. Parkea ulertzeko, instalazio bikaina da Parketxea, ikus-entzunezko material eta guzti. Paisajea, landaredia eta fauna hobeto ezagutzeko lagungarria da oso.

Beheko solairuan interpretazio-aretoa eta proiektzio-gela daude. Goikoan erakusketa-aretoa; bertan, parkeari dagozkion ezaugarri guztiak aurki ditzakezu: landaredi, fauna edo paisajeari dagozkionak ez ezik, etnografia, geologia eta garapen sozioekonomikoari buruzko hainbat jakingarri ere.

Parketxearen helburua bisitariari egun on, atsegina eta interesgarria pasatzeko adina informazio eskaintzea da. Informazioa ezinbestekoa da aisialdi ona edota heziketa egokia eskaintzeko. Hori dela eta, gazteek toki berezia dute Valderejon, ikasleek derrigorrezko geltoki. Erakusketa hau jende gazteari irekita dago, baina gai batzuk bereziki ikasleei zuzendurik daude.

Urtero 70.000 lagunetik gora inguratzen da Valderejora, hango parajearen ederra eta giroaren lasaia eta goxoa dastatzeko. Ezer baino lehen, bisitariak Parketxetik pasatzen dira informazio orokorra eta ibilbideari begira aholkua eskatzera. Esku-orriek hainbat ibilbide proposatzen dituzte, tartean herri abandonatuak bisitatzeko gomendioa ere. Baina, aurretik, ur-errotaren museotxora joatera gonbidatzen du. Handik, Puron ibaiari jarraituta, haitzarte ikusgarri batekin egingo dugu topo. San Lorentzoren baselizatik haran guztia begiztatuko duzu, bere luze-zabal-sakonean. Eta handik Valledrueleko harkaitzetara ordu-erdiko ibilaldia besterik ez dago. Harkaitzetan zintzilikatuta pausatzen diren sai arreak ikusteko behatoki aproposa da. Prismatikoak badituzu, hobeto. Horixe da, prismatikoak baliatuz, ikusi behar den bakarra Valderejon. Gainerakoa ikusi ez ezik, ukitu eta sentitu ere egin daiteke.

## ATAZA: GURE GUSTUKO TOKIA



3 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 4'

### GOPEGI

Bueno, ba, nire gustuko tokietako bat Arabako Gopegin dago. Ez dakit herri hori ezagutuko duzuen, herri txiki-txikia da.

Gopegara joateko ba Urkiolatik Gasteizko bidea hartu behar duzue. Herri honetan bi zalditegi daude eta inguruko jendea joaten da gehienbat zaldian ibiltzera.

Ni behin bakarrik izanda nago, baino oso gustura ibili nintzen. Ingurua oso lasaia da, lautada handiekin... eta bertan egiten diren... ba... zaldiekin egiten den ibilaldia zoragarria izan daiteke. "Izan daiteke" diot eguraldi ona ia ezinbestekoa delako.

Goizetik joaten bazarete, bertan dagoen jatetxeteetako batean bazkal dezakezue. Oso ondo bazkaltzen han. Arratsalde, bazkal ondoren, zaldi bat aloka dezakezue eta ordubeteko ibiladitxo bat egin dezakezue bertako lautadetan. Oso paraje ederrak dira.

Ba, horixe da nik egingo nukeen ibilaldietako bat.

### URBIA

Bueno, ba, nire gustuko tokia Urbia da. Urbia, bai, Arantzazutik gora dago. Gutxi gorabehera, ordubeteko bidea edo dago oinez joanez gero. Bidea oso polita da: pagadi baten barrutik joaten zara denbora guztian. Eguraldi..., hola, beroa edo egiten badu, ba... itzalean joaten zara ia goraino.

Bueno, ba, Urbiara iritsi eta gero, han ikus daiteke zabalguneko handi bat. E, ia ez dago zuhaitzik. Zuhaitz bakar batzuk badaude: lizarrak gehienak. Eta ...han taberna eta ostatua ere badago, bueno... eta betikoa: ardiak, behorrak, zaldiak... denetik ageri da, baita artzain-txabolak ere.

Nahi izanez gero, Urbiatik Aizkorrira igo gaitzke. Urbiatik Aizkorrira beste ordubete inguruko bidea dago. Aizkorri da Gipuzkoako mendirik altuena.

Egun-pasa joanez gero, bertan, Urbian, bazkaltzerik badago. Han kanpoan badaude zelai ederrak eta arbolape batean norberak eramandako bokadiloa-edo jan dezake, edo, nahi izanez gero, han bertako ostatuan bokadiloak eta bazkariak ematen dituzte.

Eguraldi ona egiten badu, oso toki polita da joateko, eta buelta zoragarria da. Gero, behera, Arantzazura jaitsi eta han zerbait hartu. Benetan egun-pasa polita!

### IZARRAITZ MENDIA

Niri Izarraitz mendia gustatzen zait. Izarraitz mendia Azkoitia eta Azpeitia artean dago. Azpeititik edo Azkoititik igo zaitzke, edo, bestela, Elgoibartik Zorrozeraino joan, Zorrozen kotxea utzi eta gero oinez abiatu zaitzke Xoxoteraino. Xoxoteraino edo, nahiz izanez gero, Erloko tontorreraino ere bai.

Han zer dagoen? Bada... pagoak, lizarrak, haritzak... Animaliak ere bai, adibidez, ardiak, behorrak... eta artzain-txabola batzuk ere bai, han badaude.

Eguraldi ona egiten badu, mendiko aterpean bertan bazkaldu dezakezu, edo, nahiago baduzu, berriro jaitsi eta inguruan dauden Aittola Zaharrera edo Madarixara joan zaitzke. Arratsalde partean ere badaude beste aukera batzuk, adibidez, Lasturrera joan eta bertako errota ikusi, edo Endoia auzo ezezaguna ikustera joan.

Sasoirik politena, beharbada, maiatza izaten da. Maiatzean Xoxoteko eguna ospatzen da eta bertan giro oso jatorra izaten da. Eta besterik ez.

Eskuetan daukazun liburuxka HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikas-materialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko ikas-materialak hiru mailatan banatzen dira:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera) eta bi zatitan banatua:

1 A (1., 2., eta 3. urratsak) eta 1 B (4., 5. eta 6. urratsak).

1 A mailarako ikas-materialak ehun ordu inguruko hiru zatitan banatuko dira

0-100 (lehendabiziko ehun orduak)

100-200 (ondorengo ehun orduak)

200-300 (azkeneko ehun orduak)

2. maila (7., 8. eta 9. urratsak);

3. maila (10., 11. eta 12. urratsak).

### **BARRENDIK (1 A maila)**

#### **200-300 ordutarako materiala**

- Gogozko tokian aldaparik ez
- Eskulanak
- Garai modernoak
- Pisukide berria

### **BARRENE (1B mailarako materiala)**

- Ni Tarzan... zu Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)
- Beti gose, ezin ase (9. ikastunitatea)
- Eguberri on (10. ikastunitatea)
- Txutxu-mutxuak (11. ikastunitatea)
- Hego haizea, ero haizea (12. ikastunitatea)
- Betiko topiko tipikoak (13. ikastunitatea)
- Gaueko berotasunean (14. ikastunitatea)
- Erne ibili (15. ikastunitatea)
- Lanak ematen digun lana (16. ikastunitatea)
- Bizkaia maite (17. ikastunitatea)
- Bapo jan eta zorionekoa izan (18. ikastunitatea)

### **BARRENET (2. mailarako materiala)**

- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitsa (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)
- Urtean joan, urtean etorri (9. ikastunitatea)

### **BARRENKALE (3. mailarako materiala)**

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)
- Besteak hor konpon (9. ikastunitatea)
- Ikusi-makusi zinera-jauzi (10. ikastunitatea)

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Mutrikuko  
Udala



Deba Hiriko  
Udala



Elgoibarko  
Udala

ISBN84-86968-25-9



9 788486 968250